

EZ ESAN LOROKERIARIK!

AL LORO CON LOS RUMORES

1. BEHARBADA PENTSATZEN DUZU: ETORKINEN ESKU "GERATZEN DIRA GIZARTE LAGUNTZAK"

1. Laguntzak, hainbat betekizun betez gero, pertsona guztientzat dira, ez daude etorkinei soilik bideratuta. Araua berbera da pertsona guztientzat.

2. Laguntzek jarraitzen dute; hala ere, haien herrialdeetara itzultzen diren etorkinak ikusten ditugu. Zergatik? Lan bila etorri ziren, ez laguntzen bila.

3. Krisialdi hain indartsu eta luze honetan, zoritxarrez, bertako jende askok jo behar izan du ezinbestean laguntzak eskatzera. Eskura dugun azken datuaren arabera, 2013ko maiatzekoa hain zuzen ere, Getxon Oinarrizko Errenta jasotzen dutenak 1.1754 hiritar dira, horietatik 1.162 bertakoak ziren eta 592 etorkinak.

4. Alderatzekotan, aldera dezagun alderagarria dena, hau da, zaurgarria den jendea, erasotzen erraza den jende ahula, laguntza behar duen jendea, hain zuzen ere. Zaurgarritasuna lanik edo ekonomia baliabiderik eza da, baina baita etxebizitzarik eza, hezkuntzarik eza, osasunik eza edo zerbitzuetara heldu ezin izatea, edo familiaren laguntza ere; hau da, bizimodu duinerako zailtasunak izatea.

5. Izan ezazu konfiantza laguntzak kudeatzen dituzten profesionalengan, haiek badakite nork eta noiz behar dituen laguntzok.

Ba al zenekien Getxon 5.000 bat atzerritar bizi direla eta biztanleriaren %6 osatzen dutela? Gehienak latino-amerikar herrialdeetakoak dira (%60), %25 Europakoak, %8,2 Asiakoak eta %4,3 afrikarrak. Hamar etorkinetik sei emakumeak dira. Kultura anitzeko eta kultura arteko Getxo, XXI. mendearekin batera hazi da.

2. BEHARBADA PENTSATZEN DUZU: "LANA KENTZEN DIGUTE"

1. Baina, zein lan mota kentzen dute benetan? Gazteleraz, 3 P-en lana: Prekarioa (Precario), Penagarria (Penoso) eta Arriskutsua (Peligroso).

2. Krisiak eragin askoz handiagoa izan du etorkinengan bertako jendearengan baino: biztanleria autoktonoaren langabezia-tasa Bizkaian %16koa da; etorkinena, berriz, %31.

3. Lan berdina, soldata ezberdina. Biztanleria autoktonoak egiten duen lan berdina eginda, gutxiago irabazten dute. Orokorrean, desberdintasun honek emakume autoktonoengan ere badauka eragina, gizonezkoekin alderatuta.

4. Kasu gutxitan lortzen dituzte kualifikatutako lanak, ezta goi-mailako ikasketak izanda ere, tituluak baliozkotzea oso prozesu konplexua eta luzea baita, ia-ia ezinezkoa.

5. Ziurrenik, gaur egun, Ingalaterran edo Alemanian esango dute Espainiako etorkinak lana kentzera doazela.

Immigrazioari buruzko zurrumurruak azkar eta erraz zabaldu dira eta, fenomeno hori desitxuratu egin dute; uste denaren kontra, berau ez da **dei efektuaren** ondorioa, **beharrarena** baizik. gizarte honetan bizi diren etorkinei dei egin diegu haien beharra daukagulako, guri gustatu edo ez. Fritz-ek argi zeukan: "Langileak eskatu genituen eta pertsonak iritsi ziren"

3. BEHARBADA PENTSATZEN DUZU: ETORKINEN ETORRERAK "DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN EZA HANDITZEN DITU"

1. Azken hamar urteotan delituen eta falten kopurua bere horretan mantendu da eta etorkin kopurua hirukoiztu egin da; ondorioz, etorkin kopuruaren hazkundea eta delinkuentziaren arteko harremana ez da arrazoizkoa.

2. Pertsona gaizkileak daude, baina ez dago kultura edo jatorri gaizkilerik, pertsona ez baita gaizkile jaiotzen, egin egiten da. Ez dago berez kriminala den nazionalitaterik.

3. Etorkin batzuek delituak egiten dituzte, baina gehienek ez. Hemengo jendeak ere egiten ditu delituak, baina kasu honetan ere, gehienek ez.

4 .Segurtasun-falta eta arrisku sentsazioan, zalantzarik gabe, delitu-egintzek badute eragina, baina baita begirada mesfidati askok ere.

5. Delinkuentziari eta immigrazioari dagokionez, ez ezazu esaten dizuten guztia sinetsi: gauzak inoiz ez dira hain sinpleak eta itxurak beti dira engainagarriak.

Estereotipoak pertsona batzuk irudika ditzaketen ezaugarriak dira, baina kolektibo osora orokortzen dira, ezagutezina eta arbuiagarria bihurtu arte. Gainera, immigrazioaren aurkako jarrera sozialak sortzen dituzte, batzuetan, eta elikatzen, beste batzuetan. **Zurrumurruaren aurkako lehendabiziko araua... orokortzea zalantzan jartzea da.**

4. BEHARBADA PENTSATZEN DUZU: IMMIGRAZIOAK "HEZKUNTZA-MAILA JAISTEN DU ETA GHETTOAK SORTZEN DIRA"

1. Ikasketetako arrakasta ez da ikaskideen nazionalitatearen arabera, ikastetxeen gaitasunaren eta familien egoeraren eta inplikazioaren araberakoa, baizik.

2. Ez dago gaindi ezin daitekeen zailtasunik, eskolak beharrezko bitartekoak jartzen baditu eta eskola da jatorriari dagozkion berdintasunei ondoen aurre egin diezaieken erakundea.

3. Etorkina izateagatik, ez dute ikasteko gaitasun txikiagoa. Eskola-porrotak, familiaren desabantaila sozio-ekonomikoekin eta heziketakoekin zerikusia dauka bereziki.

4.Familia erdaldunek egin duten bezala, denborarekin, eredu elebidunetan matrikulatuko dira eta euskara ikasiko dute. Hain zuzen ere, horixe gertatzen ari da haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan.

5. Ghettoarena ez da gai hutsala; gorabehera handikoa baizik. Ghettoak bereizkeria gehiago dakar, harremanik eza, baita gizarte-bazterekeria ere.

Gure esku dago estereotipo negatiboak indargabetzea. Ez gara grabitatearen legeaz ari, horren aurka ezin dugu ezertxo ere egin. Funtsezkoa da horiek eraistea Getxoko elkarbizitzarako eta kohesio sozialerako. Beraz, ez iezaiozu joera horri jarraitu eta ez ezazu entzuten duzuna irizpide propiorik gabe errepikatu. Soilik, pentsa ezazu: hau posible al da? Egia izango ote da? Puztuta egongo ote da? Emaiezu aukera bat!

5. BEHARBADA PENTSATZEN DUZU: "GEHIEGI OKUPATZEN DITUZTE ESPAZIO PUBLIKOAK"

1. Ez dago espazio komunik gabeko komunitaterik. Espazioak publikoak baldin badira, erabiltzeko izango dira, bada, ezta?

2. Galde iezaiezu elkar ezagutu ez arren espazio publikoa bazterketarik gabe eta alaitasunez erabiltzen duten umeei: haien esku dago kultura arteko gure etorkizunaren hazia.

3. Baina, zoritxarrez, batzuetan helduok umeek jostailuekin izaten dituzten kasketak imitatzen ditugu: beste batek erabiltzen dituenean nahi izaten ditugu.

4. Zertarako inbertitu espazio publikoetan erabiliko ez badira? Zertaz ari gara: espazio publikoak okupatzeaz edo berreskuratzeaz? Udaberrian, kalera irteten gara eta bizitasuna berreskuratzen dute kaleek.

Oinarrizkoa da zigorgabetasun esparruekin amaitzea, diskurtso txarrek ez diezaieten jokaera txarragoei bide eman. Isiltasun espirala hautsi behar da, sorgin-gurpilak bertutetsuak bilakatu behar dira, ez da isildu behar eta hizketakideei galdetu behar zaie ea esaten dutena zentzuzkoa, duina eta zintzoa iruditzen zaien. Hobeak egiten al ditu horrek, bada?

6. BEHARBADA PENTSATZEN DUZU: "HAIEK BAI DIRA MATXISTAK"

1. "Zozoak beleari... ipurbeltz". Gaur egun ez dago matxista ez den kultura edo gizarterik; maila ezberdinean, baina guztiek diskriminatzen dituzte emakumeak.

2. Nire aita-amaginarrebak (nire anai-arreba batzuk, baita lagunak ere...) bai direla matxistak eta hemengoak dira. Zein zaila den esaten dena egitea!

3. Ez dezagun ahaztu pertsonak ez garela matxista jaiotzen, bizitzan zehar egiten gara, bizi dugun kultura geureganatzen dugu guztiok.

4.Gure artean ere genero ezberdintasuneko egiturei eusten diegu (etxean, kalean,eta lanean...).

5. Hezkuntzan bide luzea dago egiteko eta genero berdintasun asko eraikitzeko, baina guztiok elkarrekin lor dezakegu.

Eskuartean dauzkazun argudioak, zurrumurruen aurkako 25 eragilek egindako lanaren emaitza da, zu bezala, **entzuten dutena errepikatzearekin konformatzen ez direnak, baizik eta dakitena azaltzen dutenak eta, azken batean, entzundakoa zalantzan jartzeko lana hartu dutenak: Hasteko nahikoa da!**

ZURRUMURRUEN AURREAN:
INFORMATU, PENTSATU ETA EKIN.

7. BEHARBADA PENTSATZEN DUZU: "KOMERTZIOAK IREKITZEKO ERRAZTASUNAK EMATEN ZAIZKIE ETA EZ DUTE ZERGARIK ORDAINTZEN"

1. Komertzioak irekitzeko lizentziei, tasei eta zergei buruzko araudia berdina da guztiontzat, autoktonoak edo atzerritarrak izan.

2. Ez dago atzerritarrentzako zerga edo tasa salbuespenik, ez aldi baterako salbuespenik, ez behin betikorik.

3. Merkataritzako establezimendu mota bakoitzak araudi orokorraren araberako ordutegi erregimen bera dauka, asteburuetan zabaltzen duten delikatessen bat edo fruta-denda izan. Legeak ezartzen du 150 m^2tik beherako janari-dendek eta eguneroko kontsumoko dendek askatasuna dutela ordutegiari dagokionez.

4. Aurrera egiten badute, etxeko guztiek lan egiten dutelako izango da, ordu asko lan eginda eta irabazi-marjina txikiagoz. Hori hemengo betiko dendekin ere gertatu da.

W: www.antirumores.com
www.getxo.net/antirumores

E: antirumores@getxo.net
zurrumurrurikez@getxo.net

Getxo bizi ezazu

emen ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

antirumores